

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN:

MUNGIA

2016/06/13

Kokalekua: Alkartasuna aretoa (Mungia)

Iraupena: 2 ordu eta 30 minutu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Josune Urzkizu Diez	Gamiz Fika	Udal ordezkaria. Zinegotzia
Xabier Goirigolzarri	Gamiz Fika	Inmobiliaria
Nerea Lores Martikorena	Gamiz Fika	Zinegotzia
Iratxe Agirre	Mungia	
Amaia Rementeria	Mungia	
Goizalde Bilbao	Mungia	
Eukene Guarrotxena	Mungia	BBT
Andoni Larizgoitia	Mungia	BBT
Markel Dominguez	Mungia	Zinegotzia
Pablo Maguregui López	Gamiz Fika	Udal arkitekto aholkularia
Aitor Arteta	Gatika	Zinegotzia
Estibaliz Ayastuy	Mungia	Tecnica ayto Mungia
Gartzen	Arrieta	

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Joseba Llona Sabarte	Arrieta	Colegio oficial Ingenieros autónomos
Cristian Lertxundi	Gamiz Fika	
Aida Lopez	Mungia	BCNlandscape
Jabi Arrieta	Mungia	
Igor Torrontegi	Mungia	Mungiako Udala
Zigor Uriarte	Mungia	Mungiako Udala
Zihara Rementerí	Gamiz Fika	Deia
Aitor Sarria	Getxo	Estudio K
Idoia Ziluaga Amigo	Mungia	Mungiako Udala. Zinegotzia
Maialen Zabala Urturi	Mungia	Mungiako udaleko zinegotzia
Aintzane Elordui Zurbanobeaskoetxea	Mungia	Mungiako udaleko zinegotzia
Iker Ruiz de Eginó Begoña	Mungia	Mungiako udaleko zinegotzia
Salbador Artaza	Laukiz	Laukizko Udala
Nagore Torre Ureta	Mungia	Mungiako udaleko zinegotzia
Zalóa Aranzabal Ibaceta	Mungia	Mungiako Udala. Komunikazioa
Aitor Bilbao Ugarte	Mungia	
Igor	Mungia	
Alvaro Gonzalez Bilbao	Gamiz Fika	Zinegotzia
Aitor Arteta Sertutxa	Gatika	Zinegotzia

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Tomas Orallo Quiroga	Zuzendaritzako aholkularitza juridiko alorreko arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Ainhua Lopez Eiguren	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Fernando Uriondo Ispizuak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partze hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerreraiko proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde

Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak
 - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - o Hiriz hazkundera
 - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - o Bide-mugikortasuna
 - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - o Talde mugikortasun multimodala
 - o Eredu logistikoa
 - o Ura

- Energia
- Zeharkako alderdiak
 - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - Lurraldeen arteko harremana
 - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Ainhoak:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

1.1.1. Zelaientzako (paisaia) babes-figuraren beharra, nekazaritza- eta abere-baliabide den heinean urbanizazio posibleen aurrean babesteko.

1.1.2. Monolaborantza (pinua eta eukaliptoak) mugatu basoetan. Medien garbiketa bultzatu abeltzaintzaren bitartez, lehen egiten zen bezala eta baso mistoentzako eta bertoko hostozabalentzako politika edo laguntzak sustatu.

1.1.3. Ibai-inguruak. Garbiketa eta mantentzea

1.1.4. Egiten diren jarduerak ingurunearekiko jasangarriak izan behar dira, ezin dute paisaia hautsi eta ekonomikoki egingarriak izan behar dira (adibidez, Mungialdean 10 pertsonen tomateen berotegiak jartzen badituzte, gero tomateak ezin dira saldu eta berotegiak zaharrituta eta bertan behera geratzen dira).

1.1.5. Gehiengoarentzat (herritarrentzat) landagunea paisaia baino ez da. Nork zaintzen du?

1.2. Babestutako naturguneak

- 1.2.1. Arauak behar dira, baina oztopo bihurtu gabe. Jende askorentzat naturguneak arazo bat dira, neurri positiboak beharko lirateke aukera bihurtzeko
- 1.2.2. Babestutako naturguneak / Landa lurrak. Beharrezko da landa lurrak ere babestea, hau da, babesa ez mugatzea babestutako naturguneetara edo korridore ekologikoetara.
- 1.2.3. Babesaren eta ingurune naturalen erabileren arteko oreka aurkitu behar da, babes neurriak oso murriztaileak izan ez daitezen eta jarduera batzuk baimentzeko (abeltzaintza, nekazaritza...)

1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua

- 1.3.1. Arauak behar dira, baina oztopo bihurtu gabe. Jende askorentzat naturguneak arazo bat dira, neurri positiboak beharko lirateke aukera bihurtzeko
- 1.3.2. Monolaborantzaren aurkako politika garatu behar da baso-jardueretan. Lurralde handiak jarduera pribatuaren eskuetan daude eta gaur egungo egoera ekiditeko eta baso misto eta bertoko hostozabalak sustatzeko, basogintza politikak edo laguntzak aurrera eramatea beharrezkoa da. Eukaliptoak paisaiatik kentzeko ahalegina egin behar da.
- 1.3.3. Oso kontrolatuta egon behar da uholde arriskua duten guneak, ezin da bertan eraiki. Ibaiak errespetatu behar dira.
- 1.3.4. Uholde arriskudun inguruei errespetua. Etxebizitzek erreken ingurua errespetatu behar dute. Erreken biotopoa

2. Landa-ingurunea

2.1. Landa-inguruneke garapen ekonomikoa

- 2.1.1. Lehengo sektorea bultzatu behar da, bertoko produktuak indartuz (km 0), herriko merkatuei buelta bat eman,... erakunde publikoak adibide izanda (jantoki publikoetan bertoko produktuak erabiliz adibidez).
- 2.1.2. Baserribide: Landa-ingurunean alokairua sustatu, erakundeen laguntza eta bitartekotzarekin baserri hutsen alokairua erraztuz. Horrela, landa-ingurunean etxebizitza berri gehiago eraikitzea eta baserriak erortzea ekiditen da eta belaunaldien arteko txandakatzea errazten da.
- 2.1.3. "Lurren bankua" sustatu, bultzatu eta indartu behar da. Lurrak erraztuz gazteei, langabetuei, etab. Ez bakarrik lur publikoa baita utzita daudenak ere (sasiz beteriko lurrak adibidez)
- 2.1.4. Bertoko produktuen aldeko kontsumoa sustatu
- 2.1.5. Nekazaritza-munduak laguntzak behar ditu aurrera ateratzeko
- 2.1.6. Kontsumo eredu jasangarria, tokioa sustatu beharko litzateke. Horretarako kontsumo eredu honen aldeko hezkuntza eta politikak sustatzea beharrezkoa da.
- 2.1.7. Landa-ingurunean bizi nahi dutenentzako laguntza, bitartekotza, erraztasunak, sustapena

- 2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
 - 2.2.1.Ortu komunalen garapena. Horretarako lurrak herritarren eskura jartzea beharrezkoa da.
- 2.3. Orokorra
 - 2.3.1.Arazo nagusia: landa guneeetan gero eta jende gutxiago bizi da eta batez ere, jende gutxiagok egiten du lan bertan.
 - 2.3.2.Arazoa: ez dago belaunaldien arteko txandakatzerik, gazteak erakartzeko politikak garatu behar dira.
3. Hirigunea.
 - 3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza
 - 3.1.1.Bizkaiko herrietako dentsitatea ondo dago (erdiguneetan). Hau mantentzeko eta eraikuntzak birgaitzeko diru-laguntzak edo antzeko neurriak hartu behar dira.
 - 3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - 3.2.1.Zerbitzuak hobetu/indartu egin behar dira, eskualdean sinergiak bilatzeko. Finantziazioa hobetu behar da, herri batek (herri nagusiak) besteei zerbitzua ematen die, baina finantziazioa ez dator eskualde guztitik, herri hori arduratu behar da. Finantziazio sistema egokia bilatu behar da.
 - 3.3. Hiri hazkundera / Egoitza kuantifikazioa
 - 3.3.1.Ereduarekin ez gatoz bat, zergatik egoitza kuantifikazioa? Beharrezkoa da eredu aldaketa bat ematea, behingoz, lurralde plangintza irizpide ekonomikoekin ez egiteko. Mungian adibidez 1000 etxebizitza huts daude.
 - 3.3.2.Erdiguneak indartu, ingurua zabaldu gabe.
 - 3.3.3.Etxe hutsak merkaturatu eta horretarako politikak landu.
 - 3.3.4.Herrian dauden lokal hutsak, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetarako erabili. Merkataritza gunek handiak kontrolatu.
 - 3.4. Mugako herriak
 - 3.4.1.Gertu dauden udalerriek elkarrekin egin beharko lukete plangintza. Eskualde bakoitzeko bizilagunak eskualde burura doaz bizitza egitera eta zerbitzuak partekatzen dituzte.
 - 3.4.2.Udallerri bakoitzak bere nortasuna mantendu behar du.
 - 3.4.3.Eskualde ikuspuntua izango bagenu, herritarrentzat hobe izango litzateke
 - 3.4.4.Gertu dauden herriekin plangintza bateratua egin behar da, batez ere azpiegiturei dagokienez.
4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - 4.1.1..Bizikleta motordun ibilgailuak bezala identifikatu egin beharko lirateke.

- 4.1.2. Bizikleten zirkulazioa errazteko bide-bazterrak zabaldu behar dira
- 4.1.3. Bidegorri sarea osatu behar da, Mungia eta inguruko herrien artean
- 4.1.4. Bizikletaren erabilera sustatu behar da, herri mailan eta inguruko herri eta auzoen artean
- 4.1.5. Herri barneko mugikortasunerako bizikleta
- 4.2. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - 4.2.1. Trena. Garraio sistema eraginkorra eskualdearen eta Bilboren artean.
 - 4.2.2. Trena sustatu Mungia Bilborekin lotzeko
- 4.3. Orokorra
 - 4.3.1. Eskualde barneko mugikortasun publikoa indartu behar da. Gaur egun kotxeen bitartez mugitze da eta honi alternatibak bilatu behar zaizkio. Ez da goizetik gauera aurkituko, baina proba ezberdinak egin behar dira, komunikazio aukera berriak aztertu eta martxan jarritz, Mungia eta auzoak lotzeko.
 - 4.3.2. Garraio publikoa indartu (trena...).
 - 4.3.3. Sentsibilizazio lana garraio jasangarriaren inguruan
 - 4.3.4. Garraio jasangarria bultzatu, kotxearen erabilpena murriztuz.
 - 4.3.5. Garraio publikoa hobetu/indartu egin behar da
 - 4.3.6. Hezkuntza hobetu egin behar da garraio publikoa sustatzeko
 - 4.3.7. Garraioa publikoa sustatu. Garraioa, sistema gisa planifikatu behar da, beharizan eta helburuak kontutan hartuz.
- 4.4. Ura
 - 4.4.1. Landaguneetako saneamendua hobetu. Auzoka antolatu daiteke? Lekuan lekuko soluzioak bilatu.
- 5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea
 - 5.1. Euskara
 - 5.1.1. Euskararen erabilpenerako arnaguneak babestu. Euskaraz hitz egiten den herriaren babesa
 - 5.1.2. Euskara kontutan hartu lurraldea antolatzeko planen barruan, batez ere arnaguneetan.
 - 5.1.3. Ebaluazioak egin ingurunearekin egiten den moduan.
 - 5.2. Lurraldeen arteko harremana
 - 5.2.1. Nazio mailako erlazioa (Euskal Herria)
 - 5.2.2. Europako herri eta hirien akordioaren (aldaketa klimatikoa, inklusioa, etab.) baitan lan egitea

5.3. Parte hartzea eta gobernantza

5.3.1. Galdeketak bultzatu, parte hartzea indartze aldera

5.3.2. EAEak %95eko dependentzia energetikoa dauka. Hau kontutan izan behar da gure lurralde eredua diseinatzerakoan.